

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren kostu egitura oso sinplea da, bi kostu nagusiz osaturik baitago, batetik kostu finkoak eta bestetik kostu aldakorak.

Kostu finkoetan hagnak egingo diren lekua, on-line asistentziarako tresneria, multzo honetan sartzen da tresneria elektronikoz guztia. Horrez gain, hagnak sortzeko makineria ezberdinak egongo dira. Kontuan hartu behar da, gure tailerra handia ez denez izango, eta produktu bakarra fabrikatuko dugunez, ez dugula beste hainbat makroenpresek bezain beste kostu finko izango. Kostu aldakorretan, berriz, hagnak eramango dituzten materialak egongo dira, egia esan, bezero bakoitzak aukeratu beharko du, bere gustoko hagna, material ezberdinez eta xehetasunez osatua, beraz ez dira beti eskariak berdinak izango.

Bi kostu hauez gain, beste bi mota ere badaude. Lehenik eta behin, eskala ekonomia, kostu mota honetan, ekoizpena handitu ahal izateko kostuak murriztu beharko ditugu, horrela irabazia handitzeko. Hau irabaziaz handitzeko estrategia mota bat da.

Kostu egituraren alorrean eta diru sarreren alorrean kalkuluak ondo planifikatuta eduki behar ditugu, kostuak ahalik eta gehiena murriztuz eta diru sarrerak ahalik gehien haziaz.

